

zeto Zugasti jaunak. Ondarrutar novelagille famatuaren inguruan ibilli ziran itz guztiak.

Ondarrun urtearen barrenean gauza geiago ere egin ziran: itzaldiak, ume euskaldunei sariak partitzea, Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia, teatro eta lore jokoak, Domingo Agirre-n gorazarretan literatura sariak emanaz.

RESURREZIO MARIA AZKUE JAIO ZALA EUN URTE

Lekeitio-n 1964 abuztuaren 9-an zenbait jai egin ziran Resurrezio Maria Azkue jaio zala eungarren urtea ospatzeko, bertako Ayuntamentuak prestatuta.

Euskaltzaindiko batzuek ere bertan izan ziran beste alkartade batzuetako jaunekin batean. Bilboko apezpiku Pablo Gurrupide jauna ere egon zan.

R. M. Azkue Euskal-Katedra berriaren bedeinkazioa egin zan. Los Rios-eko apezpiku Victor Garaigordobil jauna izan zan egin zuena. Bertako Ayuntamentuak sortua da Euskaltzaindiaren babesean jarririk.

Lekeitio-ko Ayuntamentuak Bizkaiko ta Nafarroako Diputazioen laguntasunarekin Azkue-n omenez ogetabost milla pezetako literatura sari bi sortu ditu. Lanak bialtzeko epea 1965 uztailaren 1-erarte ezta bukatzen. Gaiak Azkue lexicografo eta Azkue folklorista dira.

EUSKALZALEEN BILTZARRA LOYOLA-N

1964 abuztuaren 21, 22 eta 23-an Euskalzaleen Biltzar bat egin zan Loyola-n. Aita Jesuitak beren etxea eskeiñi zioten Euskaltzaindiari bildu ahal izateko. Aurretik gai nagusi bezela urrengo au zabaldu zan: "Euskal irakurleak geitzeko bideak. a) Euskera etxean; b) euskera eskolan; d) euskera radioan; e) euskera aldizkarietan; f) euskera gaurko liturjia berrian; g) euskera teatroan; h) irakurtzen asi berriak diranentzat literatura."

Aita Antonio Arana Loyola-ko Jesuiten nagusiak itzaldi labur bat egin zuen ongi etorria emanaz. Luis Mitxelena-k eskerrak eman zizkan bildutakoen izenean eta asi ziran berriketak. Izlariak bukatzen zuenean alkarrizketa sortzen zan nai zuen guztiak parte arturik txanda eskatu ondoren. Piarres Larzabal-ek teatroaz eta radioaz itz egin zuen. Aita Luis Villasante-k pedagogiaz, Anai Valentin Berriotxo-k lantxo bat bialdu zuen aurrei kaligafia irakasteaz. Aita Gaizka Barandiaran-ek lan bat bialdu zuen nola ematen dituen euskal eskolak Tudela-n. Aita Antonio Zavala-k lan bat bialdu zuen **Auspoa** liburu sortaz "Euskal irakurleak geitzeko bideak" saillean sartzen zalako. Aita Juan Goikoetxea-k itz egin zigun Azpeiti-ko gazteak zer egiten ari diran euskera eta euskal literaturari dagozkion gauzetan. Aita Angel Goenaga mintzatu zan egiten ari dan txisaz: "Filosofía de la lengua vasca". Aita Isidoro Basterrika beneditanoa liturjia berriaz. Manuel Lekuona-k itzulpen euskerara moldatu bat bialdu zuen esko-